



“FAMILIA ORIENTAZIO ZERBITZUAREN X. URTEURRENA”

Familiak, erakunde ofizialen arreta eta orientazioa behar dute, familia bakoitzaren barne ezaugarriak aintzat hartuta, eskura dituzten baliabideak eta zerbitzuak ezagutzeko. Horrela, maila pertsonalean nahiz familiarrean dituzten beharrianak aseko lituzkete.

Horretarako, Urola Garaia Mankomunitatean, 10 urtez indarrean egon den Zerbitzua gogorarazi nahi diegu familiei, beraien seme-alaben hazkuntzaren inguruan izan ditzaketen zalantzei erantzuna emateko.

1. Familia Orientazio Zerbitzua

Zerbitzu honek, familien funtzio ordezkaezinak suspertzeko alternatiba izan nahi du, hazkuntza lanetan segurtasunez jarduteko. Internet erabiltzeak, zerbitzurako sarbidea berehalakoa izatea ahalbidetzen du konfidentzialtasun testuinguru batean, aditu taldearekin bakarkakoa eta jarraitua den elkarrekintza garatzeko aukera ematen duelarik.

Zerbitzua erabiltzeko prozedura:

Familiak, duen zalantza, Internet, telefono edota posta arrunt bidez azaltzen du.

- Telefonoz (astearteetan 11:30etatik 13:00etara eta 17:00etatik 18:30etara):
 1. Familiak *Etxadira* deitzen du (94.405.15.49) kontsulta burutzeko.
 2. *Etxadi* taldeak, kontsultaren arazoia eta familiaren datu espezifikoak jasotzen ditu. Jarraian, familiari, gehienez 5 lan-egunetan erantzuna jasoko duela jakinarazten zaio, familiak nahiago duen bidetik (telefonoa, posta elektronikoa edo posta arrunta)

- Internet bidez (ordutegi zehatzik gabe):
 1. Familia, *Etxadi*ko webgunera sartzen da (www.etxadi.org). Bertan, “Egin zure kontsulta” ikonoa aurkituko du eta bertan klik eginez,

beste herri eta Mankomunitate batzuekin batera bere Mankomunitateari erreferentzia egiten dion ikonoa aurkituko du "Urola-Garaia Mankomunitatea". Lotura horretan, kontsulta egiteko galdetegiak agertuko zaizkio eta hauek bete eta bidalita, kontsulta egingo du (<https://usuarios.etxadi.org/eu/?whatform=selectform&whatid=2>).

2. Familiak berehala, kontsulta jaso denaren agiria jasotzen du. Horrez gain, mezuan, bere zalantzei erantzungo dion orientazioa gehienez 5 lan-egunetan jasoko duela jakinarazten zaio.
3. Erantzunean, kasu bakoitzari egokitutako orientazio espezifiko eskainiko da, programa zehatz bat, bibliografia edota beharrezkoen arabera orientazioaren bidez.
4. Bestelako erantzun zehatzago bat behar dituzten kasuak antzematen badira, lehenik eta behin, kasua, Mankomunitateak dituen zerbitzuetara bideratuko da. Baina, hauek beharrik ez badituzte, *Psikologoaren Elkargo Ofizialera* bideratuko dira, kontsulta egokiago erantzungo duen aditurik egokiena aurkitzeko helburuarekin.

- Posta arruntaz (ordutegi zehatzik gabe):

Familiak, kontsulta ondorengo helbidera idatziz eta zuzenduz egin dezake: Etxadi. Máximo Aguirre kalea 18 bis, 5. solairua, 10. dptua 48011 Bilbo.

- Behin familiak erantzuna jaso duenean, hautazkoa den aldizkako jarraipena egiten da eraginkortasuna ebaluatzeko, familiaren eta talde adituen artean prozesu interaktiboa zabaltzeko aukera ematen duena.

2. Gurasoentzako formazio bilkurak

Zerbitzuarekin batera, modu paralelo batean, urtero gurasoentzako formazio bilkurak egiten dira mankomunitateko familientzat. Aurten, 2015. urtean, lehen bilkura Legazpin izango da martxoaren 24ean arratsaldeko seietan (18:00): "Errespetua familia-arteke harremanetan".

